

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA, 2008ko martxoaren 11koa, Europar Batasunaren Solidaritate Funtzaren mobilizazioari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruz egindako erakunde arteko hitzarmenaren 26. puntuak xedatutakoari jarraiki (2008/267/EE).

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, relativa a la movilización del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea de conformidad con el punto 26 del Acuerdo interinstitucional de 17 de mayo de 2006 entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera.» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 85/7, 2008/3/27koa*)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## II

*(EE/Euratom Tratatuak aplikatzeko erabakitako egintzak, derrigorrez argitaratu behar ez direnak)*

### ERABAKIAK

#### EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA, 2008ko martxoaren 11koa, Europar Batasunaren Solidaritate Funtsaren mobilizazioari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruz egindako erakunde arteko hitzarmenaren 26. puntuak xedatutakoari jarraiki**

(2008/267/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruz <sup>(1)</sup> egindako erakunde arteko hitzarmena aztertu dute, bereziki 26. puntua,

Kontseiluaren 2012/2002 (EE) Erregelamendua, 2002ko azaroaren 11koa, Europar Batasunaren Solidaritate Funtsa sortzen duena <sup>(2)</sup> aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute; Honakoa kontuan hartuta:

(1) Europar Batasunak Europar Batasunaren Solidaritate Funtsa ("Funtsa") sortu du, hondamendiak izan dituzten eskualdeetako populazioari elkartasuna emateko.

(2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Hitzarmenaren bitartez, funts horretan urteko 1 000 milioi euro mugitu daitezke gehienez.

(3) 2012/2002 (EE) Araudiak funts hori mugitzeko xedapenak zehazten ditu.

(4) Erresuma Batuak eskaera bat egin zuen, 2007ko ekainean eta uztailean herrialde hartan izandako uholdeek sortutako kalteak zirela-eta, funts hori mugitzeko.

ERABAKI DUTE:

#### *1. artikulua*

Europar Batasunak 2008ko ekitaldirako duen aurrekontu orokorraren barne, 162 387 985 euro mobilizatuko dira Europar Batasunaren Solidaritate Funtsaren eskutik konpromiso-kredituak eta ordainketa-kredituak egiteko.

#### *2. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Estrasburgon eginga, 2008ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea*

---

(1) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/29/EE Erabakiak (L 6 EO, 2008.1.10ekoa 7.or.) aldatutako Hitzarmena.

(2) L 311 EO, 2002.11.14koa, 3.or.

2008/267/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 85/7 2008/3/27koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*Kontseiluaren izenean, J. LENARCIC presidentea*